

MARKINA-XEMEIN / Udan zer irakurri, entzun eta ikusi gomendatu du Herri Bibliotekak

Neguan egin modura, gida bat atera dute hainbat aukerekin; guztira 118 proposamen egin dituzte.

E. Mugartegi

Udan irakurri, ikusi eta entzun ditzakezketen lanak gomendatu dizkie Herri Bibliotekak herriko ume, ume koskor, gazte eta nagusiei. Neguan egin zuten moduan, gida atera dute udako aukerekin.

Udan denbora libre nahikoa egoten dela eta, asko dira irakurri, musika entzun eta pelikulak ikusten dituztenak, esan dute. Aukerok jakitera emateko atera du gida Herri Bibliotekak. Lan guztiak herri bibliotekan bertan eskura daitezke, eta gainera, %25eko deskontua lor daiteke euskarazko irakurketa liburuetan Kareaga liburudendan, uztailaren 25era arte. Deskontu baleak Herri Bibliotekan daude.

Guztira 118 aukera bildu dituzte udako gidan: umeentzako 44 aukera, ume koskorrentzako 27 eta gazte eta nagusientzako 47.

Lan gehienak euskarazkoak badira ere, gaztelaniazko aukerak ere sartu dituzte, paperean zein CD eta DVDan jasotakoak. Horrela, Pako Aristi eta Jokin Mitxelenaren Ez zait irakurtzea gustatzen gomendatu dute umeentzat, Emmanuel Bourdierren 4 urte, 6 hilabete eta 3 egun geroago ume koskorrentzat, eta Anjel Lertxundiren Zoaz Infernura, laztana gazte eta nagusientzat.

Bertoko beharrak

Bertoko idazleen lanekin ere gogoratu dira antolatzaileak: umeen aukeren artean Leire Bilbao eta Eider Eibarren Markel Gelazikin eta Ana Urkizaren Tita tirita sartu dituzte. Estreinu berri diren Yolanda Arrietaren Amarunen alamandrea eta Off-on eta Aita Luis Baraiazarraren Nire sasoiko Markina-Xemein ere aukeren artean daude.